musikene

**Musikeneren Zuzendari Artistikoaren 13/2006 ebazpena, urriaren 20koa; horren bitartez "kolaborazio instrumentala" aukera libreko jarduera akademiko gisa definitzen da eta hori antolatzeko prozesua ezartzen da.**

**Resolución 13/2006 de 20 de octubre del Director Artístico de Musikene por la que se define la "colaboración instrumental" como actividad académica de libre elección y se establece el procedimiento para su organización.**

Aukera libreko hezkuntza-eskaintzak curriculuma aberasten du, haren helburu nagusiez bestelako irakasgai eta jardueren bitartez. Gainera, ikasketa-plana malgutzen du; izan ere, irakasgai konbentzionalak ez ezik, kreditu akademikoak amortizatzeko aintzat har daitezkeen askotariko jarduerak ere uztartzen ditu. "Kolaborazio instrumentala" da jarduera horietako bat eta honela defini genezake: ikasleak egindako esku hartzea, irakasgai instrumental jakin batzuk garatzeko behar diren hainbat musika-zereginen esparruan. "Kolaborazio instrumentalaren" helburu nagusietako bat honako hau da: ikaslea musika-irakurketa azkar eta eraginkorrean trebatzea, denbora-tarte laburrean beste musikari batzuekin egoki akoplatzea ahalbidetzearren.

La oferta educativa de libre elección enriquece el currículo con asignaturas y actividades de naturaleza diferente a sus objetivos principales. Además, flexibiliza el plan de estudios al poder integrar no sólo asignaturas convencionales sino también actividades de carácter diverso que puedan ser consideradas para amortizar créditos académicos. Dentro de estas actividades se encuadra la "colaboración instrumental", entendida como la intervención del alumno en cometidos musicales diversos requeridos para el desarrollo de determinadas asignaturas de carácter instrumental. La "colaboración instrumental" tiene como uno de sus objetivos primordiales el adiestramiento del alumno en una lectura musical rápida y eficaz que le permita acoplarse satisfactoriamente con otros músicos en un breve periodo de tiempo.

Azaldutakoa kontuan izanik, Ebazpen hau idatzi dut, "kolaborazio instrumentala" deritzan aukera libreko jarduera eta jarduera hori antolatzeko prozedura definitzeko.

Teniendo en cuenta lo expuesto anteriormente, redacto la presente Resolución para definir la actividad de libre elección denominada "colaboración instrumental" y el procedimiento para su organización.

*1. artikulua. "Kolaborazio instrumentalaren" definizioa.*
Ikasle batek ikasketa-planeko irakasgai instrumental batean duen parte-hartzeari deritzo "kolaborazio instrumentala", betiere parte-hartze hori aldi baterako musika arloko esku-hartzea izanik, irakasgai horren programan ezarritako errepertorioa garatzeko behar den esku-hartzea izanik, hain zuzen ere.

*Artículo 1. Definición de la "colaboración instrumental"*
La "colaboración instrumental" consiste en la participación de un alumno en una asignatura instrumental del plan de estudios en forma de una intervención musical temporal, requerida para el desarrollo del repertorio establecido en el programa de dicha asignatura.

*2. artikulua. Ikasleak "kolaboratzaile instrumental" gisa jardutea eska lezaketen irakasgaiak.*
Ganbera Musika edo Talde Musika irakasgaietako edozein instrumentu-espezialitatetan, beharrezkoa izan daiteke partenaire bat unean-unean kolaborazioan jardutea, errepertorioan instrumentazio berezia duen partitura bati heltzeko aukera izatearren. Era berean, Kantu espezialitateko irakasgaietan —hala nola Eszena Lirikoa, Kantuari Aplikatutako Fonetika, Errepertorio Bokal eta Estilistikoa— eta Kontzertazioan beharrezkoa izan liteke ikasle piano-jotzaile edo kantari baten kolaborazioa, haren martxa akademikoari edo hark aukeraturiko errepertorioari jarraiki. Instrumentu Nagusiko zenbait irakasgaitan, batez ere Jazzeko iraskagaietan, instrumentista laguntzaileen kolaborazioa ere beharrezkoa izan liteke. Azkenik, konposizioaren arloko irakasgaietan —Transkripzioa, Praktika Harmoniko/Kontrapuntistikoa, Konposizioaren Teknika eta Konposizio Tailerra— litekeena da instrumentistarik behar izatea irakasgai

*Artículo 2. Asignaturas que pueden requerir alumnos en calidad de "colaboradores instrumentales".*
Las asignaturas de Música de Cámara o de Conjunto en cualquiera de las especialidades instrumentales pueden requerir la colaboración puntual de un partenaire para poder abordar una partitura del repertorio que posea una instrumentación especial. Asimismo, asignaturas de la especialidad de Canto, como la Escena Lírica, la Fonética Aplicada al Canto, el Repertorio Vocal y Estilístico o la Concertación pueden necesitar la colaboración de un alumno pianista o cantante, obedeciendo a su marcha académica o al repertorio escogido. Algunas de las asignaturas de Instrumento Principal, especialmente las de Jazz, pueden requerir también la colaboración de instrumentistas acompañantes. Finalmente, materias de carácter compositivo, como la Transcripción, la Práctica Armónico-Contrapuntística, la Técnica de la Composición o el Taller de Composición pueden necesitar instrumentistas para interpretar las obras escritas por los

musikene

horietako ikasleek eurek idatzitako obrak jotzeko. Hemen ageri den zerrenda orientazio gisakoa da eta ikasturte bakoitzean zehaztuko ditu Musikenek "kolaborazio instrumentalari" hel diezaioketen jarduerak.

*3. artikulua. Izena ematea.*
Matrikulatze garaian, kolaborazio instrumentaleko ezaugarriei buruzko informazioa emango zaio ikasleari, ikasle kolaboratzaile zerrendan izena emateko oniritzia emanez edo ukatuz.

*4. artikulua. Jardueren proposamena.*
Izena emandako ikasleen zerrenda ezarritakoan, irakasleek kolaborazio instrumentalerako egindako eskaerak bilduko ditu Musikenek eta eskaera horiei erantzutea proposatuko die zerrendako ikasleei.

*5. artikulua. Matrikulazioa eta kredituen amortizazioa.*
1. Ikasturtea bukatu ondoren, txosten bat idazteko eskatuko zaie ikasle laguntzaileak izan dituzten irakasgaietako irakasleei. Kolaborazioaren iraupena eta emandako kalifikazioa adierazi beharko dute txosten horretan.
2. Idazkari Akademikoak ikasle laguntzaileen zerrenda argitaratuko du eta honako hauek adieraziko ditu bertan: ikasle bakoitza zein irakasgaitan aritu den laguntzaile, lortu duen kalifikazioa eta zenbat aukera libreko kreditu amortizatzeko eskubidea duen.
3. Kreditu horiek "Kolaborazio Instrumentala" izen orokorraz bilduko dira ikasleen espedientean eta kolaborazio hori garatu den irakasgaiaren izena aipatuko da parentesi artean.
4. Kolaborazio Instrumentalen ordezko kredituen amortizazioak, ez du inungo kargu ekonomikorik suposatuko ikaslearentzat.

*6. artikulua. Jazz espezialitateetako Kolaborazio Instrumentala.*
1. Jazz espezialitateko irakasgaien Kolaborazio Instrumentala, hautazko irakasgaien eskaintzaren parte kontsideratuko da.
2. Atzeraeraginezko izaerarekin, eta ikasleari Karrera Amaierako azterketetan kolaboratzaile gisa parte hartzeko eskatzen zaizkion exijentzia bereziak kontutan hartuz, 2005-2006 ikasturtean zehar ikasturte horretako Karrera Amaierako azterketen prestakuntza eta parte-hartze lanak, hautazko kreditu gisa zenbatuko dira.

*Xedapen Indargabetzailea.*
Urriaren 26ko 25/2005 ebazpena indargabetuta geratzen da.

alumnos propios de dichas asignaturas. Esta relación es orientativa y Musikene especificará en cada año académico las actividades susceptibles de acogerse a la "colaboración instrumental".

*Artículo 3. Inscripción*
En el momento de proceder a la matriculación, el alumno será informado de las características de la colaboración instrumental, dando su conformidad o no para ser inscrito en las listas de alumnos colaboradores.

*Artículo 4. Proposición de actividades.*
Establecida la lista de alumnos inscritos, Musikene recabará de los profesores las peticiones de colaboración instrumental y propondrá a dichos alumnos la atención de las mismas.

*Artículo 5. Matriculación y amortización de créditos.*
1. Finalizado el año académico se solicitará a los profesores de las asignaturas, que hayan tenido alumnos colaboradores, la redacción de un informe indicando la duración temporal de la colaboración y la calificación otorgada.
2. El Secretario Académico hará pública la lista de alumnos colaboradores con indicación de la asignatura en la que han colaborado, la calificación obtenida y el número de créditos de libre elección que tienen derecho a amortizar.
3. Su inclusión en el expediente quedará reflejado con el nombre genérico de "Colaboración Instrumental" indicando entre paréntesis la asignatura en la que se ha desarrollado dicha colaboración.
4. La amortización de los créditos por colaboración instrumental no supondrá cargo económico alguno para el alumno.

*Artículo 6. Colaboración Instrumental en las especialidades de Jazz.*
1. La colaboración instrumental en las asignaturas de la especialidad de Jazz se considerará parte de la oferta de asignaturas optativas.
2. Con carácter retroactivo, y teniendo en cuenta las exigencias especiales que se demandan al alumno de Jazz como colaborador en los exámenes de Fin de Carrera, se computarán como créditos optativos los realizados en el curso 2005-2006 correspondientes a la preparación y participación e los exámenes de Fin de Carrera del citado curso.

*Disposición Derogatoria..*
Queda derogada la Resolución 25/2005 de 26 de octubre.

Alejandro Zabala Landa
ZUZENDARIA / DIRECTOR.